

ESKOLAKO JANTOKIA

ATAKONDOA I.P. (IRURTZUN)

2025-2026 IKASTURTEA



AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. ENPRESA HORNITZAILEA

3. ESKAINITAKO ZERBITZUA

3.1. Bazkaria ikastetxean bertan egina

3.2. Antolakuntza

3.3. Apyma: Goiz txokoa eta Ordutegi luzaketa

4. IKASLEEKIKO ARRETA ETA ANTOLATZE LANAK

4.1. Hiru urteko ikasleen arreta

4.2. Aho Garbitasuna

4.3. Gourmetfood enpresa

5. FAMILIENTZAKO FORMAZIOAREN PROGRAMA

6. JANTOKIKO PREZIOAK

6.1. Bankuko kontua

6.2. Ez etorriak eta itzulketak

7. JANTOKIKO ARAUAK

8. JANTOKIKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

8.1. Ikasleak

8.2. Guraso/Tutore

ERANSKINAK

1. SARRERA

Irurtzongo Atakondoa Eskualdeko Ikastetxeko Jantokiak inguruko herrietatik eskolara etortzen diren ikasle guztiei, baita Irurtzunen bizi eta jantokia erabili nahi duen edozein ikasleri ere ematen die bazkaltzera.

Jantokiak ondoko 2 dokumentuetako araudia betetzen du:

- [58/2024](#)
- [284/2024](#)

2. ENPRESA HORNITZAILEA

Catering Gourmet Food

Av. de Europa, 2, 31592 Cintruénigo

Tlf: 948 811896

CIF: A31827538

Kudeaketa taldea:

- Ikastetxeko kudeatzailea: Vicky Calatayud Álvarez.
 - Ikastetxe, enpresa eta jantokian lan egiten duen taldearen arteko koordinazioa ahalbidetzen duen pertsona da. Aldez aurretik antolatutako bisitak ikastetxera egingo ditu.
 - Jantokiko arduraduna: Silvia Benito.
 - Monitorea (ratioen arabera):
 - Irailean 8 begirale astelehenetik ostegunera eta 10 ostiraletan. Urritik aurrera berriz 12 begirale egunero, 2,5 orduko iraupenarekin.
 - Sukaldeko taldea:
 - 2 sukaldari.
 - Office lanpostu 1.
- Ezarritako ikasle-ratioaren arabera arautzen dira jardunaldiak.

3. ESKAINITAKO ZERBITZUA

3.1. Bazkaria ikastetxean bertan egina

Atakondoako Jantoki zerbitzuak, eskolan bertan dugun sukaldeari esker, astelehenetik ostiralera, egunean bertan eginiko bazkaria eskaintzen du.

3.2. Antolakuntza

Jantoki zerbitzua astelehenetik ostiralera eskeinitako da.

URRIA-MAIATZA

Astelehenetik ostegunera ikasleek 2 txanda ezberdinetan bazkaltzen dute, eta ostiraletan, berriz, txanda bakarrean.

Astelehenetik ostegunera:

Alde batetik HH eta LH-ko ikasleak eta beste aldetik DBH-koak (urritik aurrera).

TXANDAK	ORDUAK	TALDEAK	ESPAZIOA
1.	13:45 - 15:30 14:00 - 15:30 14:05 - 15:30	HH LH (1. eta 2. maila) LH (3, 4, 5 eta 6. maila)	Jantokia
2.	15:05 - 16:15	DBH	Jantokia

1. Txanda:

- Bazkaldu aurretik:
 - 13:45etan jantokiko langileak Haur Hezkuntzako ikasleak jasotzera geletara joango dira. Ordu horretarako ikasleak prest egongo dira (eskuak garbi eta mantala jantzita) jantokiko langileen zain.
 - 14:05etatik 15:30etara: Lehen Hezkuntzako ikasleria jaitsiko da monitoreen laguntzarekin.
- Bazkaldu ondoren:
 - HH1 eta EI1eko ikasleek siesta botako dute jantokiko monitoreen laguntzarekin 15:30 arte. Ondoren, irakasleak arduratuko dira eskolatik atera arte.(Egokitzapen garaia behin bukatuta, irailak 30).
 - Gainontzeko taldeetako ikasleak, etxera eraman beharreko materialak hartu (berokia, motxila...) eta patiora aterako dira.
 - Ikastetxean antolatutako eskolaz kanpoko ekintzetara joango dira, ekintza bakoitzeko irakasle arduradunarekin.
 - Autobusetako begiraleek HHko ikasle garraiatuak aparkalekura lagundu ondoren, LHko ikasleak patiotik aparkalekura joanen dira. Aparkalekuan begiraleek itxaroten dituzte.
 - Familiek Irurtzongo ikasleak 16:15etan eskolako eremuan jasotzen dituzte (urritik maiatzera). Iraila eta ekainean 15:05etan.
 - Egunen batean garraiatuaren batek autobusa erabiliko ez balu, familiek aparkalekuan itxarongo diote.

2.Txanda:

- 15:05etatik 16:15etara DBHko ikasleek bazkaltzen dute. Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako ikasleek azken saioko irakaslearen laguntzaz, motxilak, berokia... hartu eta jantokira joanen dira (motxilak bertan utziko dituzte). Bazkaldu ondoren, liburutegira igo ahal izango dira lana egitera (gutxienez 10 ikasle badaude) edo patiora atera ahal izango dira.

Esku garbiketa, bazkaldu aurretik eta ondoren egitea mantenduko da.

Ostiraletan:

HH/LH/DBH elkarrekin bazkaltzen dute 14:00etatik 15:00etara. HH 13:45ean hasiko da, eta LH/DBH 14:00etan. Ondoren, 15:00etan ikasle garraiatuak autobusa hartzera joango dira eta Irurtzungoak eskola eremuan jasoko dituzte.

3.3.APYMA: Goiz txokoa eta Ordu-tegi luzaketa

Apymak jantokiko zerbitzu osagarriak antolatu ohi du, hauen artean **goiz txokoa** (ikasturteko egun guztietan) eta **ordutegi luzaketa** (Iraila, ekaina eta ostiraletan).

Behar duten ikasle orori zabalik egongo da beti ere Guraso Elkarteko kuota ordainduta badute. Ordu-tegi luzaketaren kasuan, gurasoek 15:50etan ikasleen bila etorri beharko dute. Ordu horretan ez dago garraio zerbitzurik.

Zerbitzu honen jarraipena ziurtatzeko ikaslego talde minimoa beharrezkoa denez familiei konpromezua eta seriotasuna eskatzen zaie. 48 orduko antelazioarekin abisatuta modu esporadikoan erabili daiteke.

4.IKASLEEKIKO ARRETA ETA ANTOLATZE LANAK

Jantokian ikasleen antolaketak ondorengo errespetatzen du:

- Adinaren eta taldeen arabera banaketa: Adin bakoitzak dituen ezaugarrien, elkarbizitza talde eta horrek eskatzen duen arreta bereziei erantzunez.
- Hizkuntzaren arabera.

Araudiak ezartzen duen ikasleak zaintzeko ratioa, ondorengo hau da:

Ratioen aldagaiak	
HHko ratioa	15
HHko ratioaren zatikia	10
LHko 1.-2 mailakoen ratioa	20
LHko 1.-2 mailakoen ratioaren zatikia	15

LHko 3.-6. mailakoen ratioa	30
LHko 3.-6. mailakoen ratioaren zatikia	20
DBHko ratioa	30
DBHko ratioaren zatikia	20
Zaintzaile orduak	2,5

4.1. Hiru urteko ikasleen arreta

Hiru urteko haurrek bazkaldu ondoren lo-kuluxka egiten dute. Lo-kuluxka egiteko oheak maindire batekin babestuta daude. Maindire hauek, astelehenetan garbiak jarriko dira eta ostiraletan umeek etxera eramango dute garbitzera. Ostiraletan ez da siestarik egongo, ateratzeko ordua 15:00etan delako.

Atsedean une honetarako, ikasle bakoitzak manta bat ekarri beharko du ikastetxean izateko, beti izenarekin markatuta. Manta hau, hiruhilekoan behin garbitzera eramango dute umeek etxera.

Eskolatik objektu kuttunen erabilera errespetatzen da eta ikasle bakoitzaren beharrei modu individualizatuan erantzuten zaie. Beraz, nahi izatekotan, panpin, txupete edo objektu kuttunen bat ekar daiteke.

Ikasleren batek pardela behar badu lotarako, errespetuz eta intimitatean jarriko zaio.

4.2. Aho Garbitasuna

Urritik maiatzera LH eta DBH-ko ikaslegoak eskubila **sinplea** bere taparekin eta izena jarrita eta hortzetako pasta ekar dezake ohitura osasungarri hau mantentzeko. LH-ko 5 eta 6. mailako ikasleek, zein DBH-koek, nezeserra ekarriko dute. Jantokian geratuko dira objektu hauek. Beti ere, borondatezkoa da hauek ekartzea eta erabiltzea.

4.3. GOURMETFOOD ENPRESA

Gourmetfood enpresako web orrialdean menuak ikusteko aukera dago, horretarako, jarraibide hauek kontuan hartu behar dira:

<https://catering-gourmetfood.com/>

Sarrera menuak

Ikastetxeak

Eskola aukeratu

Klabea "Irurtzun"

Menu Basal ala dagokiona aukeratu

Honez gain, eskolako web orrialdean ere ikusteko aukera dago:

<https://atakondoa.educacion.navarra.es/web/es/>

5. FAMILIENDAKO FORMAZIOAREN PROGRAMA

Gourmetfood enpresak bere jarduerari buruzko informazioa zabaldu nahi die familiei eta sortzen diren arazoei erantzun. Horretarako, informazio-bilera bat egingo da lehen hiruhilekoan.

6. JANTOKIKO PREZIOAK

Jantokiko prezioak Hezkuntza Departamendutik jasotako jarraibideen arabera kalkulatu dira eta 2024ko irailaren 16eko Eskola Kontseiluan erabaki dira:

IKASLE GARRAIATUAK ETA BEKADUNAK

- **HH(4-5 urte)/LH**
Irailtik ekainera, astelehenetik ostiralera: 35 €/hileko
- **DBH**
Iraila 4 ostiral: 8 €/hileko
Ekaina ostiral 1: 2 €/hileko
Urritik maiatzera, astelehenetik ostiralera: 36€/hileko

GARRAIATU GABEKO IKASLEAK

- Egun soltea: 6,5€
- HH/LH**
- Ohiko ikasle ez garraiatua, 3 urtekoak urritik maiatzera eta gainontzeko guztiak irailtik maiatzera astelehenetik ostiralera: 112 €/ hileko.
 - Ohiko ikasle ez garraiatua (ekaina) astelehenetik-ostiralera: 74€/ hileko.
- DBH**
- Irailean ostiraletan: 26 €/ hileko
 - Urritik maiatzera astelehenetik ostiralera: 112 €/ hileko.
 - Ekainean ostiraletan: 6,5 €/ hileko

Familia bereko 3 kide izanda, 3. kideak 20% deskontua jasoko du eta 4 kide izanda, 4. kideak %30.

6.1. Bankuko kontua

Jantokiko errezeiboak Caixaren bitartez bidaliko dira dagokion hilabetea bukatu eta gero, hilaren 10a aldera.

Ezinbestekoa da ahalik eta lasterren kontu korrante baten zenbakia Zuzendaritzari ematea. Era berean kontuaren zenbakia aldatuz gero, lehenbailehen jakinarazi beharko da.

6.2. Ez etorriak eta itzulketak

Ikasle bekadunek derrigorrez **egunero** gelditu behar dira beka jaso ahal izateko.

Beka jaso ez dutenen kasuan, astean 4 egunetan gelditzen badira 5. eguneko menua deskontatuko zaie baina monitorearen zati proportzionala mantenduko zaie. Menuaren prezioa: 4.05€.

Ikasleak egun puntualetan ez badira etorri behar, pertsonalki nahiz telefonoaren bidez, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko da zuzendaritzan, eta beranduenez egun horretako goizeko 10ak baino lehenago.

Ez etorri luzeen kasuetan, familiak jakinarazi beharko du ikaslearen itzulera eguna.

7. JANTOKIKO ARAUAK

Jantokian dauden pertsonen errespetatu beharko dituzte:

- Norbera
- Besteak
- Ingurua
- Emandako elikagaiak

Gure jantokia, mahaian egoteko oinarrizko arauak eta besteekiko errespetua ikastea lortzeko gune bizi eta alaia da.

Bazkaltzeko denbora denontzat atsegina izan dadin ondorengo arauak eta ondorioak kontuan hartu behar dira:

ARAUAK 1. Jantokitik eta jolasteko lekuetatik ordenean eta lasaitasunez ibiltzen gara. 2. Bazkaldu baino lehen eta ondoren eskuak garbitzen ditugu. 3. Egunero toki berean eta modu egokian esertzen gara. 4. Arduradunak begirunez tratatzen ditugu eta haiek esandakoa betetzen dugu. 5. Ahotsaren tonu moderatua erabiltzen dugu, beharrezkoak ez diren soinuak egin gabe. 6. Mahaian higieneko oinarritzko arauak izaten ditugu: poliki eta ahoa itxita murtxikatzen dugu, ahoa beteta ez dugu ura edaten edo hitz egiten, mahai tresnak modu egokian erabiltzen ditugu eta espazioa garbi mantentzen saiatzen gara. 7. Eskaintzen dizkiguten jaki guztiak dastatzen saiatzen gara. 8. Janaria baloratzen dugu, ez dugu botatzen eta erortzen bada biltzen dugu. 9. Gure kideak aintzat hartzen ditugu. 10. Egun berezietan (euria, elurra) egokituko diren arauak beteko ditugu. 11. Materiala errespetatzen dugu.	ONDORIOAK oinarritzko arau hauen kontra baten batek zerbait egiten duenean: ➤ Monitoreek ikaslea ohartaraziko dute. ➤ Monitoreek erabakitako neurriak beteko dira: ○ Errespetu falta jaso duenari barkamena eskatzea. ○ Gertatutakoaz gogoeta egin eta idatzi. ○ Hautsitakoa ordaintzea nahita edo gaizki tratatzeagatik apurtu bada. ○ Eta abar. ➤ Behar izanez gero, informazioa ikastetxeko Bizikidetza arduradunari helaraziko zaio, eta ezarritako protokoloaren arabera jokatu da. ➤ Honetara iristen bada jantokiko koordinatzaileak familiari egoeraren berri emango zaio.
---	---

8. JANTOKIKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

8.1. Ikasleak

Eskubideak

Jantokian geratzen diren ikasleek eskubidea izanen dute:

- Dagokien bazkari-kantitate egokia egunero jaso eta jateko. Beraz, ezin izango da, inolaz ere, zigor moduan bere kantitate hori gutxitu.
- Bazkaldu baino lehen, bitartean eta ondoren dagokien begiraleen arreta osoa izateko.
- Esan edo proposatu diotenaren gaineko ezadostasuna adierazteko, beti ere begiraleekin begirunez egiten badute.
- Jantokiko zereginetan parte hartzeko, berauek hezkuntza helburuen barruan sartzen badira.
- Bazkaltzeko leku jakin bat izateko.
- Orokorki errespetatua izateko eta, zehatzago, bere bazkaltzeko erritmoa onartzeko, beti ere bai begiraleek baita ikaskideek ere jarritako ohiko tarteen barruan bazkaltzen badute.
- Jantokiko materiala eta bertan erabiltzen diren tresnak ere erabiltzeko.
- Aisialdirako antolatuko diren jarduera orotan parte hartzeko.
- Medikuak agintzen badu, egokia den beste dieta hartzeko.

Betebeharrak

Jantokia erabiltzen dutenek beharko dute:

- Beste guztiak: ikaskideak, begiraleak, sukaldariak eta garbitzaileak errespetatu.
- Jantokiko altzariak eta bestelako tresneria guztia behar den bezala erabili.
- Platerean emandako jana onartu, inolako mespretxurik egin gabe.
- Jantokirako ezarritako arauak bete.
- Otorduetarako baita aisialdirako ezarritako ordutegiak bete.

8.2. Familia/Tutore

Eskubideak

Familiak eskubidea izanen dute:

- Egun bakoitzeko menua aldez aurretik ezagutzeko.
- Jantokiko orduetan zerbait gertatuz gero, bere seme-alaben gaineko informazio zehatza jasotzeko.
- Jantokiko funtzionamenduari buruz behar duten informazio guztia jasotzeko.

Betebeharrak

Familiek eta tutoreek honako hauek bete beharko dituzte:

- Jantokiari buruz bidaliko zaien informazioa irakurri.
- Euren seme-alaben dietan arazorik balego jakinarazi.
- Otorduetan medikamenturen bat eman behar bazaie, medikuaren agiria eta eman beharreko medikamentuak ekarri, behar den kantitatea adierazita.
- Jantokian geratuko ez diren egunetan, telefonoaren bidez zuzendaritzari gutxieneko denborarekin jakinarazi sukaldariei abisatzeko.
- Haur bat jantokiko orduan jaso nahi izanez gero, aldez aurretik monitoreei baimena eskatu, horretarako arrazoiak eman.
- Zuzendaritzari banketxeko kontu korrante baten zenbakia eman, bertan hila bakoitzeko diru kantitatea kobratzeko, baita aldaketak sortuko balira horien berri eman.
- Jantokiko ordainketa garaiz egin. Halaber oroitarazi, bi hilabeteko zorra metatzeak, automatikoki zerbitzu honetarako eskubidearen galtzea suposa dezakeela. Eta berdin, aurreko ikasturtetik zorrak izateak ere, aipaturiko eskubidearen galera ekar dezake.

ERANSKINAK

- [Familiarentzako otordu osasungarri eta jasangarrien gida](#)
- [Guía de alimentación para la planificación de menús escolares](#)